

UDAL AURREKONTUAK EZTABAIDAN

Gobernu taldeak bere proposamena aurkeztu zuen lehenengo bileran

■ Inbertsioak (obrak eta antzekoak) dira eztabaidan daudenak ■ Datorren asteazkenean herritarren proposamenak jasoko dituzte ■ Hirugarren eta laugarren bileran eztabaidatu eta erabakiko dira aurtengo inbertsioak.



Pleno aretoan egin zen lehen bilera, asteazkenean.

AURREKONTUAK eztabaidara atera ditu aurtengo Batasunako udal gobernu taldeak. Atzo, aurtengo aurrekontuen nondik norakoak esplikatu eta inbertsioen gainean beren proposamena egin zuten. Aste hau herritarrek proposamena aztertu eta ideiak lantzeko utziko dute. Hurrengo bilera datorren asteazkenean izango da, 19:30etan, udaletxeko pleno aretoan. Herritarren proposamenak han jasoko dira.

INBERTSIOAK EZTABAIDATUKO DIRA

Udal aurrekontua atal asko osatzen dute. Inbertsioak dira eztabaidara eramango direnak, gainerako atalak "nahiko jakinakoak eta teknikoagoak baitira" gobernu taldearen hitzetan. Hala ere, bestelako proposamenak ere jasoko omen dituzte: bai diru laguntza, zerbitzu eta gainerakoak.

Inbertsio gehienak obrak dira, alor ezberdinetan egiten direnak. Herriko obra horiek dira, aurrekontuen eztabaidan

erabaki nahi direnak.

AJUSTATU BEHARRA

Gobernu batzordeak aurtengorako aurreikusten duen aurrekontua 2.500 miloi ingurukoa da. Horietatik 400 miloi dira inbertsioetarako erabiliko direnak. Inbertsio proposamena betetzeko 445 miloi beharko direla aurreikusten dute. Proposamena ere gehiago ajustatu beharko da, beraz.

ANTZIOLA-LATXUNBE ENLAZEA

Proposamenean, proiekturik haundiena da Antziola Latsunbe enlazea, diruari dago-kionez. Bidez lotzekoak dituzte bi rotunda: Cuesta de la Muerte hasieran egitekoa dutena eta Ertzainen base aurrean dagoena. Herri barruko trafikoa arintzea du helburu.

Arriatsu eskola zaharrean (Osiñagan) ingurugiro eskola eta udal albergea egitea da beste proposamenetako bat. Udal jangelan obrak egin eta

udal euskaltegia bertara pasatzea aurreikusia dago, Biteri librexeago geratu dadin. Tilo-setako frontoiko aldagelak beritu eta Antziolako kirol pistarako aldagelak egin nahi dituzte. Cuesta de la Muerten, karril bat jarri nahi da oinezkoentzat. San Joanetako zezenetarako barrena berriak jartzea aurreikusia dago... Hauek eta taulan dauden gainerakoak dira proposatutako 2002rako inbertsioak.

Orain herritarrek aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak.

EA-EAJ: "HERRITARREI ADARRA JOTZEA DA"

EA-EAJko udal taldeak dio Batasunak "itxurak gordetzeko" egiten duela aurrekontuen planteamentu hau. "Iaz, Batasunak esan zuen

GOBERNU TALDEAREN INBERTSIO PROPOSAMENA	
ZERBITZU PUBLIKOAK: 116.920.640	
INFORMATIKA:	8.000.000
ARGIA ETA URA	16.820.640
OBRAK ETA ZERBITZUAK	62.500.000
NEKAZARITZA	800.000
JARDINAK	1.500.000
SEGURTASUNA ETA OSASUNA	10.000.000
KIROL INSTALAZIOAK	8.300.000
MAINTENIMENDUA ETA OBRAK	9.000.000
KULTURA: 18.577.300	
ARETO MAGUSIA EGOKITU	13.000.000
FONDO BIBLIOGRAFIKOAK	5.577.300
EUSKARA: 22.000.000	
UDAL EUSKALTEGIA	15.000.000
EUSKALGINTZARAKO LOKALAK	7.000.000
HIRIGINTZA: 223.231.000	
IKERKETA ETA PROIEKTUAK	10.000.000
HIRIGINTZAN AIRE EGOKITUA	4.000.000
PARADOREA: BARRIA BOTA	5.000.000
ANTZIOLA-LATXUNBE ENLAZEA	120.000.000
SELAK ETA BESTEAK	14.231.000
ALDE ZAHARRA: 3. FASEA	70.000.000
HEZKUNTZA: 43.000.000	
INGURUGIRO ESKOLA ARRIATSU	40.000.000
IKASTETXEAK	3.000.000
KIROLDEGIA: 11.390.000	
ATLETISMOKO LOKALAK	10.000.000
UMEEN ALDAGELAK	300.000
TAIBERNAREN EGOKITZAPENA	590.000
GINMASIDA: TALDEENA	500.000
ONGINTZA: 10.000.000	
ZENBAIT INBERTSIO	10.000.000

Auzo Elkarteekin erabaki zizutela inbertsioak eta aurrekontua. Aurtengo, zergak edo inbertsioak igo dituztenean Auzo elkartearen iritzirik gabe egin omen dute". Diote orain aurrekontuen inguruko bilere-tara deitu dituztela, baina, Auzo elkarteek ezingo omen dituzte aurrekontuak osotasunean aztertu eta "inbertsioetako atal bakar batzuk aztertzea" mugatuko omen da elkartearen parte hartzea. EA-EAJren iritziz herritarrei adarra jotzea da hau eta azpian "betiko dirigismoa" dago. □

OSIÑAGAKO AUZO ELKARTEA

Kuota kobratzera bihar pasako dira

OSIÑAGAKO Auzo Elkarteak etxez-etxe biltzen du urteko kuota. Aurtengoa bihar bilduko dute. Normalean igandean egiten dute; Bertsolari Txapelketa dela eta, aurtengoa, larunbatean egingo dute.

Kuota 1.500 pta da. Aurduneko eskatu dute, norbait etxean egongo ez bada, mesedez bizilagunari uzteko dirua. □

Inauterietako ekintzak udalean aurkezteko epea: abenduak 17

2002ko Inauterietako ekintzaren bat presentatu nahi duenak astelehena arte dauka udaletxean aurkezteko aukera. Aurkezpene Udaletxeko erregistroan egin behar da; goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara. □

AHTaren kontrako manifestazioa, bihar

ARRASATEN abiadura haundiko trenaren kontrako manifestazioa egingo dute, larunbatean, 17:00etan. Hernanitik autobusak irtengo dira: 15:15etan Zinko Enean. Izena emateko 943 556346. □

Xenon
Hernani
Telemar
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

AMD XP 1500
80 GBko diskoa,
512 MBko memoria,
17"ko monitora..
166.386 pta + %16 a Bez.
Beste hainbat ordenagailu
49.900 ptatik . 3 urteko garantia.

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Bautista Biurrarena
Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxa 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI

GSE

LAN AHOLKULARITZA
FISKALA
KONTABLEA

GSE

Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

HERNANI

KixKal
Taberna
naqusia 15

Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.

SKODA
AUTO

Skoda Fabia Combi Datorren jendearentzat espazio berria.

MENABI
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43

Euskera bultzatzeko hitzarmena ari dira aztertzen Buruntzaldeko udalak

- Euskera indartu nahi dute: familian, irakaskuntzan, merkataritzan, banketxeetan...
- Eginak dauzkate eskolarteko kirol plana, euskerazko produktuen katalogoa eta abar.

BURUNTZALDEKO herriek euskera bultzatzeko plana egin nahi dute. Eskolarteko kirolean aritu dira orain arte. Orain, guztien erabakiz, beste sektore batzuetan hasi nahi dute.

MINIMOAK JARTZEN

Malores Etxeberria udaleko euskera teknikariak esan digunez, Buruntzaldeko herrien errealitateak oso diferentek dira.

“Oso zaila da lehenetsunak

markatzea eta horregatik, hitzarmena minimo batzuren gainean egingo dugu: familia barruko euskera erabilera, irakaskuntza, aisialdia, merkataritza eta entitate finantzarioak. Hitzarmen honek ez du mugatuko horretaz gain herri bakoitzak egin nahi duena”.

ORAIN ARTEKO LANAK

Dagoeneko egin dituzte lan batzuk euskeraren inguruan: “Eskolarteko kirolean, esku-

aldeko ia talde guztietako entrenatzaileak euskaldunak dira. Bestalde, euskal produktuen katalogoa 16 urte arteko gazte guztien etxetara bidali dugu (3.000 ale); hilabeteko haurrak dituzten gurasoei liburuxka (umeen euskara) eta CDa (sehaska kantak) bidaltzen dizkiegu hilabetero”.

Politikoen adostasuna ia erabatekoa omen da eta urtarri-la-otsailerako indarrean egotea espero dute. □

■ GIMNASIA ERRITMIKOA

Jaione Tejedor hirugarren, estatuko txapelketan

■ ‘Ipurua’ taldea, ‘Chamartin’ (Madril) eta Marbellaren atzetik klasifikatu zen, taldeka eta aparatoka.



Jaione Tejedor, zuzen-zuzen.

JOAN den asteburuan, Espainiako txapelketa jokatu zuten 30 taldek, gimnasia erritmikoan. Jaione Tejedor hernaniarraren taldea (Ipurua) hirugarren gelditu zen.

Hiru ekipo nabarmendu ziren txapelketan: Chamartin, Marbella eta Ipurua. Bi modalitateetan neurtu zituzten indarrak: taldeka eta aparatoka. Taldeka-koan Chamartinek irabazi zuen; aparatoka Marbellak. Ipurua, berriz, hirugarren geratu zen bietan. Aparatoka, lehenbizikotik 0.5 puntura gelditu ziren. □

■ WATERPOLOA

Hernaniko lau gazte, estatuko selekzionarako aukerekin

■ OSTIRAL honetan, estatuko Waterpoloko selekzionatzailea Galdakaora dijoa entrenamendu bat egitera, Euskal Herriko 16 urteko gazterik onenekin. Entrenamendu saio honetatik estatuko selekzionarako gazte batzuk aukeratuko ditu, horien artean 4 hernaniar: Peru Alfaro, Beñat Allur, Aritz Arenales eta Harri Iturrioz.

Hernaniko entrenatzaileak esan digunez, oso zaila daukate selekzionara joatea, baina, ondo etorriko zaie entrenamendu hau.

Zingi-Zanga, Irrintzi eta Antziola tabernetan mus txapelketak gaur

- Bihar arratsaldean Elkano tabernan izango da
- Aldiro ematen zaizkie sariak onenei.

HERNANIKO hainbat tabernetan mus txapelketak izaten dira astero. Gaur: Zingi Zangan (Floridan) gaueko 22:30-etan hasiko dira partidak. Izen ematea 21:00ak baino lehen egin behar da. Ereñotzuko

Irrintzi tabernan eta Antziola tabernan ere 22:30etan hasiko dira partidak.

Bihar ere bada musa Hernanin. Elkano tabernan arratsaldeko 16:00etan hasiko da txapelketa. □

Txantxangorri elkarteak barrikotea gaur da

- Sagardoa Barkaiztegiak izango da, aurtengo txapel-dunarena ■ 20:00etan hasiko da afaria.

TXANTXANGORRI elkarteak urtero antolatzen du barrikotea. Sagardoa eramaten duena, urteko Sagardo Txapel-

ketako irabazlea izaten da; aurtengoa, Barkaiztegi.

Hogeitamar bat lagun daude apuntatuta, beti bezelatsu.

PEÑA OTAÑO ELKARTEA

Eguarritako loteria abenduak 18 arte gordeko zaie sozioei

- Hortik aurrera gainontzeko jendeari saltzen hasiko dira
- Bestalde, gaur, barrikotea izango dute, 20:30etan.

PEÑA Otañoeko bazkideek hilaren 18a izango dute azkeneko eguna Eguarritako loteria hartzeko. Hortik aurrera bazkideek hartu ez dituztenak gainerrakoei salduko dizkiote.

BARRIKOTEA, GAUR Urteroko barrikotea, berriz, gaur izango dute, 20:30etan. Hogeitamarren bat lagun daude apuntatuta. Inskripzioa asteazkenean itxi zen. □

ZINEA BITERIN

Scary Movie II, gaur, 22:30etan

■ Asteburuko pelikula: *Doraemon*: larunbatean eta igandean 17:00etan; *Scary Movie*: gaur 22:30etan, bihar 19:30etan eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: AEKko pintxo lehiaketari buruz, Arantxa Artolarekin (AEKko irakaslea) 12:00: Malores Etxeberriarekin, Buruntzaldeko euskararen hitzarmenari buruz 12:30: Hirulaurden plataformako Maritxu Sanzekin, Xabier Arnaizen askatasuna eskatzeko mendi martxari buruz.

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Interesatuak deitu 943 33 09 27 -Mari Jose- (19:00-21:00).

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
▶ Gauzez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793

ESKOLARTEKO KIROLA - PARTIDUAK

HOCKEYA	TALDEAK	NON	01/12/15	SASKIBALOA	TALDEAK	NON	01/12/15
Benjaminak	Langile B - Langile C	Kirokdegia	11:15	Alebinak	Neu. Urumea-Elizatxo	Kirokdegia	9:15
Benjaminak	Urumea - Langile B	Kirokdegia	12:00	Alebinak	Neu. La Salle A - Langile	Donostia	
ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak	Mit. Langile B - Langile A	Kirokdegia	10:15
Benjaminak	Talde guztiak	Landare	10:00	Alebinak	Mit. Inmaculata-Mary Ward	Kirokdegia	10:15
FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	Infantilak	Mit. Inmaculata-Loiola B	Kirokdegia	11:45
Infantil mut.	Urumea-Aralar	Zubieta	9:00	Infantilak	Mit. Akitapeta B - Langile	Kirokdegia	
Infantil nek.	Utarvegi - Langile	Donostia		PELOTA	TALDEAK	NON	NOIZ
BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak	Langile A - Langile B	Kirokdegia	9:15
Alebinak	Otiza-Elizatxo	Andoain		Alebinak	Elizatxo B - Elizatxo A	Kirokdegia	9:30
ESKUBALOA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak	Urumea - Langile C	Kirokdegia	9:45
Alebinak	Presentacion-Uru	Uruñeta	9:00	Infantilak	Elizatxo-Salesarrak	Uruñeta	16:00
Alebinak	Egape B - Elizatxo	Uruñeta	9:00	Infantilak	Langile B - Utarvegi A	Uruñeta	16:30
Alebinak	Egape A - Elizatxo	Uruñeta	10:00	Infantilak	Utarvegi B - Langile A	Uruñeta	16:30



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI



ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

BADATOR OLENTZERO, BADATOR



ZATOZ TXIMELETARA ZURE
OPARIAK AUKERATZERA
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI



OKINDEGIA
ANTZIOLA

Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI



Urdin



Osagarri, opari edo lurrinen bila bazabiltza, Montebideo
kalean aurkituko duzu orain behar duzuna:
Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar.
URDIN Osagarri Denda

Montebideo kalea 1 (EPO eta atletismo pista artean) - HERNANI